

EGUNKARIA

Jende ugari eta giro ona AEK Txotx Egunean

■ UAk bezala, PPk ere kontuak eskatu dizkio AEKri

Erredakzioa / Donostia

EHUNDAKA lagun elkartu ziren atzo Astigarragako eta ingurueta-ko sagardotegietan AEK-k antolatutako II. Txotx Egun edo Sagardotegi Egunean. Euskal Herriko bazterretatik autobusean hurbildutako egundaka AEKzale giro onean elkartu ziren. Ikasle eta irakasleez gain, beste lagun mor-
do ere izan zen bazkarian eta arratsaldean egindako festan, As-
tigarragako plazan. Ikasleei eus-

kal giroan murgiltzeko eta euska-
ra erabiltzeko aukera eman nahi
ziren AEK-k ekitaldi honekin.

Bestealde, Partidu Popularrak
ere bat egin du Unidad Alavesare-
kin AEKri kontuak eskatzeko or-
duan, ustez Koordinakundeak
Jarrai gazte erakundea finantza-
tu duelakoan. Carlos Urkijo par-
lamentarioak AEKrentzat onartu
berri den 550 milioi pezetako di-
rulaguntza «izozteko» eskatu du,
laguntzak zertarako diren argitu
arte. X



Sagardotegiak AEKzalez bete ziren Astigarraga eta inguruetan.

EDURNE KOCH